

hik hasi

Hezkuntza eraldatzeko

5 € · 2024ko uztaila
290 znb

22-31

Elena
Herráni
elkarrizketa

32-39

Guraso bilera
"zaharkituak"
berrikusiz

40-45

Psikologoaren
figura eskolan:
zerbitzu bat
baino gehiago

50-52

Proposamena:
Pertsona
gorrak ulertuz

54

Atzeko atletik

Legearen aukerei begira



Itzalen Dama eta Patxi Bakallu

URTZI LEONET SANTA CRUZ

IÑAKI G. HOLGADO



Euskal herriko eta munduko beste herrietako mitologiaren arteko lotura egiten duten magiaz beteriko istorioak.

elkar

elkarargitaletxea.eus

hik hasi

Hezkuntza eraldatzeko

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA
Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua.
20018 DONOSTIA GIPUZKOA.

Tel: 943 37 14 08 ; www.hikhasi.eus;

Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus

Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Ainhoa Azpirotz, Ainara Gorostizu,
Olatz Lasagabaster.

Erredakzio batzordea: Mikel Agirrezabala, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugarte-
txea eta Arantxa Urbe.

Aholkulariak: Ane Ablanedo, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Nere Amenabar, Esti Amenabarro, Amaia Antero, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe Garmendia, Elena Herran, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi, Olaia Jimenez, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Gofii, Nerea Mendizabal, Maialen Oiarzun, Naiara Ozamiz, Karmele Perez Lizarralde, Karmele Perez Urraza, Iratxe Redondo, Matilde Sainz, Nora Salbotx eta Xabier Tapia.

Komunikazioa: Paula Estevez.

Administrazioa: Uxue Ugartemendia.

Azaleko argazkia: Hik Hasi.

Diseinua: Sorland.

Maketazioa: Hik Hasi.

Inprimategia: ANTZA S.A.L.

Hezkuntza Sailak onetsia (2024-6-10).

Kopurua: 3.400 ale.

Hik Hasiko edukiak baliatu eta zabaldu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta soilik baldintza beretan eginez gero. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plaza-ratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.



Hezkuntza Sailak eta Kultura eta Hezkuntza Politika Sailak (Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Aurkibidea

“

Antzinako herriaren (bere heldu inkontzientea) eta gizaki hobeago baten posibilitatearen arteko muga-mugako mekanismo biologiko miresgarria da haurra

Jorge Oteitza

6 EDITORIALA
Beranduegi izan aurretik

8 IRITZIA

10 HILEKO IRUDIA
Hezkuntza Legearen aukerei so

12 GAI NAGUSIA
Ezin da beste aldera begiratu



22 ELKARRIZKETA
Elena Herrán



32 ESPERIENTZIA
Guraso bilera
"zaharkituak" berrikusiz

40 EKARPENA
Psikologoaren figura eskolan:
zerbitzu bat baino gehiago




46 AHALDUNTZE ESKOLA
Mugikortasun segurua

50 PROPOSAMENA
Pertsona gorak ulertuz



54 ATZEKO ATETIK
Sergio Tejero





Hezkuntza komunitatea giltzarria da gaztetxoaren eta gazteen suizidioaren prebentzioan. Funtsezkoa da gizartean suizidioaren tabua haustea eta hezitzaileak sensibilizatzea eta formatzea.

Heriotza gertakari arrunta da eskola komunitatean. Batzuetan zuzenean eragingo dio hezkuntza komunitateari, ikasleren baten, irakasleren baten edo langileren baten heriotzagatik, edo gurasoren baten heriotzagatik. Eta, hala ere, ikastetxe askok ez daukate heriotza lantzeko protokolorik ezta aurrez sensibilizazio lana egiteko heriotzaren pedagogiarik ere. Heriotzak gertatuko dira, eta ikastetxeetan prestatu behar dugu.

Heriotza naturala ez denean, eta bereziki suizidio bidezkoa denean, are zailagoa gertatzen da gaia ikastetxean lantzea, bereziki heriotzaren pedagogiarik egin ez denean, eta protokolorik ez daukagunean. Suizidioa oraindik ere tabua delako gure gizartean. Baina gero eta suizidio gehiago gertatzen dira, eta eskola komunitatea gero eta ukituago dago hain mingarria gertatzen den heriotza modu horrengatik. Gizartean tabua izateak berak zaildu egiten du ikastetxeetan suizidioaz hitz egitea. Beraz, gizartean tabua haustea funtsezkoa da gaia ikastetxeetan lantzeko, eta baita prebentzioan eragiteko ere.

Izan ere, suizidioaz hitz egitea suizidioa prebenitzeko modu eraginkorrenetako bat da. Eta, era berean, suizidioa prebenitzeko leku esanguratsuetako bat ikastetxea da. Suizidioak gertatu gertatzen baitira gure ikastetxeetan, eta baita suizidio-saiakerak ere. Adituen arabera, ikastetxea eremu giltzarria da gaztetxoaren eta gazteen suizidioa prebenitzeko, "konfiantza eremu" izan daitekeelako. Horretarako, funtsezkoa da hezitzaileak gaiaz sensibilizatzea eta formatzea.

Giltzarrietako bat bai; hezkuntza komunitateak rol garrantzitsua izan dezake gaztetxoaren eta gazteen suizidio kasuen prebentzioan. Baina ardura osoa ez da, inondik inora ere, hezkuntza komunitatearena. Irakasleen sensibilizazioaz eta formazioaz gain, beste hiru oinarri behar ditu suizidioaren prebentzioak: gurasoen kolektiboa sensibilizatu behar da; baita ikasleak ere, eta laugarrenik, osasungintza indartu behar da, eta arrisku egoeran egon daitezkeen ikasleek sarbide zuzena izan behar dute buru-osasuneko zentroetan.

Heriotzaren lanketak eta suizidioaren prebentzioak lekua izan behar dute gure ikastetxeetan, beranduegi izan aurretik.

Beranduegi izan aurretik

Editoriala



Imanol Alvarez Varela

Bilboko Ellacuria-Zurbaran institutuko Filosofia irakaslea eta *hik/hasitarra*

Ez gaintituak

Urtero legez, heldu dira oporrak. Honezkero nabigatu ditugu ebaluazio bilerak. Baina aurtengoetarako beranduegi bada ere, meloi hau zabaldu nahiko nuke. Darion hatsetik ustel-durara pasatuko gara bestela.

Berrikuntza eta ikasleekiko hurbiltasuna exigentzia ezarekin nahasteak sor ditzakeen arazoak iradokitzen saiatu nintzen aurrekoan. Zentzu horretan, kalifikazioa, ikasleek duten onena ematera bultzatzen dituen beste baliabide bat dela ahaztu dugula dirudi. Eta bai; Hezkuntza Sailak eskola porrota ezkutatzeko sartzen digun presioari bota diezaiokegu errua, baina onar dezagun guk ere, bostak beste alde batera begira jartzen ditugula. Bakea denontzat. Hortxe gero gure ikasleen ulermen eta adierazpen maila eskasa, edo lanerako jarrera zein ardura falta. Eta, pertsona baten ibilbidea edozein delarik ere, arrakastarako ezinbesteko baloreak dira biak.

Badakit ekainean ospatzen ditugula Gabonak, baita ikasleekin antze handia behar dela edo ikasle bakoitzak bere zirkunstantzia akademikoak eta personalak dituela.

Baina ulergarria denaren atetik filtrorik gabe pasatzen ari gara. Gatazka ez da inoren gustuko, noski, baina ekiditeak gatazka handiagoetara garamatza. Geuk geurea eginda, ikasleek euren egiten ez baldin badute, ez diegu inolako mesederik egiten urte batean eta hurrengoan pasoa eman. Ahalegintzea gaitasun bat da, besteen moduan. Noiz eta nola barneratuko dute?

Ohikoa bilakatu da ikasleak adinagatik edo jarrera txarragatik pasatzea, kexatzen diren gurasoak dituzten ikasleak pasatzen diren moduan. Errepikapenak ezer onik ekarriko ez diela argudiatu ohi da, falazia bi argudio berean: etorkizuna ezagutzen dugula dirudi eta bi aukeren artean bata txarra denez, bestea ontzat ematen dugu. Ulertzen dut estigmatikoko beldurra, baina guk indartzen dugu errepikapena muturreko salbuespen bilakatzen dugunean. Portzierto, hurrengo ikasturtean laguntza irakasle bat zurekin egoteak estigmatiza dezakeen maila berean. Horretan ere, modernismotik postmodernismorako saltoan, mundua banakoari moldatzea banakoa munduari moldatzea baino egokiagoa dela iruditu zaigu. Ez goi eta ez doi. Oreka da bidea.



Arantxa Urbe Irazusta

Irakaslea eta *hik/hasitarra*

Ametsen profesionalak

Une egokian leku aiposean: **Hik Hasik** antolatutako *Lehen Hezkuntza Eraldatzen* graduondokoak sentiarazi didana.

Bi urteko formazioan aukera izan dugu eraldatzen ari den hezkuntzari haurra begiratzeko modu berrietatik, emozioetatik, harremanetatik, konpetentzietatik, artetik, digitalizaziotik, feminismitik, komunikaziotik, eta beste hainbat erpinetatik begiratzeko. Formazio pertsonalaren bidez, haurren larruan jarrita, bi-zipenak gure gorputzetatik pasa eta bururaino iritsi gara, erantzunak eta ekintzak antolatzen diren garun harrigarria. Usteak eta ezagutzak deskasari eta berriak eraiki ditugu, ikerketetan eta marko teorikoetan oinarrituagoak. Sentitu, pentsatu eta ekin egin dugu. Izan ere, hezitzaileok ere, ekin aurretik, bihotza eta burua ezinbesteko ditugulako. Hori guztia elkarrekin eginez gero, eraldaketa izugarria da.

Punta-puntako adituek eta arituek gidatu gaituzte, bertakoak. Hezkuntzaren teoria eta praktikaren jakintza handia baitugu hementxe, etengabe osatzen eta gorpuzten ari dena. Eta euskaraz, euskaraz transmititu eta elkarbanatu baitezakegu.

Harago iritsi da, ordea, graduondokoa. Taldea

Euskal Herri osoko eta sare guztietako 36 lagunek osatu dugu, eta harreman horretan denok aberastu gara. Bakoitzaren eskarmen-tua eskainiz eta besteena entzunez, gogoeta eginez, hartu-emanen: eman ez eta jasoz.

Ikusi dugu zeinen beharrezkoak diren gisa horretako espazioak, errealitate guztietako hezitzaileak bilduko gaituzten guneak, elkarrekin berri izateko, elkar ezagutzeko. Entzutea, elkarrekin eraikitze modu bakarra baita. Eta **Hik Hasik**, beste behin, asmatu du elkargune izaten. Zeinen eroso aritu garen gure kezkek eta gure ametsak besteekin partekatzen, taldean sortu den konplizitateari esker.

Horrek guzti horrek sentiarazi dit behar nuen tokian eta unean egon naizela. Gehiagorako gogoz geratu gara, ikasteko, hausnartzeko eta, batez ere, elkarrekin harremanetan jarraitzeko. **Hik Hasi** izan da azken 29 urtetan hezkuntzaren bazter guztietatik egiten ari garen ahalegina biltzeko eta sintonian jartzeko misioa beregain hartu duena. Eta euskaraz eta euskara zainduz egin du. Hezkuntzatik herria eraikitzen jarraitu nahi dugunon, eta HEZKUNTZAK kezkatzen gaituenon aterbea izaten jarraitu behar du, zaindu beharreko altxor preziazua da. Ametsen profesionalak eta gauzatzaileak izaten segitzeko, izan *hikhasitar!*



Hileko irudia

Hezkuntza Legearen aukerei so

Hik Hasik EAEko Hezkuntza Legea. Biharamunerako koordinatuak liburua aurkeztu du Orona Fundazioan (Hernani), hezkuntzako eta gizarteko eragileen aurrean. Ainhoa Azpirotz **Hik Hasiko** eragiletza arduradunak eta liburuaren koordinatzaileak adierazi duenez, "EAEko Hezkuntza Legearen aukerak baliatu behar ditugu euskal hezkuntza sistema propioa lortzeko bidean". Ekitaldian parte hartu dute, alde batetik, liburuan parte hartu duten adituetako batzuek, besteak beste: Olaia Jimenezek (HUHEZI), Maialen Oiartzunek (EHU), Maite Usabiagak (Bergarako Udala); Iñigo Salaberriak (Heize) edota Gotzon Barandiaranek (Euskal Kultur Transmisioa). Eta beste aldetik, hezkuntza eta gizarte eragile ugari ere aurkezpenean izan dira: Kontseilua, Ikastolen Elkarte, Kristau Eskola, Eusko Ikaskuntza, ELA, LAB, Ikaslan, Udalbiltza, UEMA, Hernaniko Udala, Elkar, IkasElkar, Elhuyar, UEUeta hainbat erakundetako ordezkariak.



Gai nagusia

Ezin da beste aldera begiratu

Datuek ez dute beste aldera begiratzen uzten: bi egunetik behin, gutxienez pertsona bat hiltzen da suizidio bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan. Egunero hamar saiakera egoten dira. Gazteen artean gaixotasunez besteko heriotza arrazoi nagusia da. Gazte horietako asko eta asko gure ikastetxeetan daude. Ondorioz, hezkuntza-zentroak prebentziorako gune garrantzitsuak dira. Neurriak jarrita, sentsibilizazioan eta prebentzioan eraginda, nerabeen suizidio asko saihestu egin daitezke.



» Agustin Erkizia eta Eva Bilbao, Biziraun elkartearen sortzaileak, Tolosako Inmakulada ikastolan suizidioaz formazioa ematen.

Datu ofizialen arabera, bi egunetik behin, gutxienez pertsona bat hiltzen da suizidio bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan. Gazteen artean, heriotza naturala ez den kasuen arrazoi nagusia da; 15-29 urte bitartean, auto-istripuetakoen bikoitza. Gazte horietako asko eta asko gure ikastetxeetan daude. Suizidioa eta suizidio saiakerak gertatu egiten dira DBHko, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikastetxeetan. Gure ikastetxeetako errealtateek ez dute beste aldera begiratzen uzten. Hezkuntza komunitatea eragile giltzarria da suizidioaren prebentzioan, esku-hartzean eta posbentzioan.

Agustin Erkiziaren arabera, merezi du hezkuntzan ere beste aldera ez begiratzeak eta gai honi heltzeak, "suizidioa prebenitu daitekeelako". Erkizia Biziraun elkartearen sortzailea da, bere emazte Eva Bilbaorekin batera. Biziraunek suizidioz hildako pertsonen senideei

laguntza eskaintzen die, eta gizartean sentsibilizazio eta formazio lan handia egiten ari da. "Suizidio kasu guztiak ezin dira prebenitu, baina portzentaje batean prebenitu daitezke; beraz, merezi du esfortzu bat egiteak". Erkiziaren arabera, hainbat suizidio aurreikus daitezke suizidatzeko asmoa duten pertsonen arrastoak uzten dituztelako: "Arrasto horiek aurrez identifikatzea benetan zaila izaten da, baina gai izango bagina, zenbait bizitza salbatu ahal izango lirake". Finlandiako kasua jarri du adibide moduan: "Mundu mailan suizidioaren prebentziorako plan bat abian jarri zuen lehen herrialdea izan zen, 90eko hasieran. Planeko neurriak martxan jarri ondoren, suizidio kasuak hirutik batera murriztea lortu zuten. Zer lan egin dute? Protokoloak bai, baina batez ere gizartearen sentsibilizazioan eragin dute".

Baina gure gizartean, oraindik ere tabua den gai bat da suizidioa, eta beraz, ezezaguna.

Erkiziaren arabera, tabua puskatu egin behar da eta argi hitz egin behar da suizidioari buruz, "baita hezkuntza komunitatean ere". Beharrezkoa ikusten du hezkuntza komunitatea sentsibilizatzea eta formatzea, egungo errealtateaz jabetzeko. "Eskola konfiantza-eremua izan daiteke gaizki dagoen ikaslearentzat; gazteak agian lagun bati arrastoren bat azal diezaioke, edo harreman estua duen edo gustura sentiarazten duen irakasle bati 'oso gaizki nago' esan diezaioke, 'ez diot bizitzari zentzurik aurkitzen'; irakasle batek halako mezu bat jasotzen duenean, bideratzen jakin behar du, baliabideak ezagutu behar ditu eta babestuta sentitu behar du".

Irakasleak, familiak, ikasleak eta osasungintza

Erkiziak formazioa aldarrikatzen du, lehenik eta behin irakasleentzat. "Lehendabizi suizidioaren fenomeno eza-gutu behar da; gero arrastoak identifikatzen ikasi; arrisku faktoreak eta babes faktoreak ezagutu, eta horrekin guztiarekin, ez begiratu beste aldera: arriskuan egon daitekeen norbait ikusten baldin badugu, inguratu eta galdetu zer moduz dagoen, eskua luzatu, ikus dezala ez dagoela bakarrik". Egoeraz jabetu arren ingurukoek beste aldera begiratzea tamalgarria izan daiteke ikaslearentzat, baina irakasleari ere "kalte handia" egin diezaioke ikasleak, zoritxarrez, bere buruaz beste egingo balu. "Irakaslea pertsona horri laguntzen saiatu baldin bada, bere kontzientziak bakean utziko du, 'egin nezakeena egin dut eta saiatu naiz'; baina ez baldin badu laguntzeko ahalegin egin, erru sentimendu horri buelta emango dionik ez dago".

Irakaslearen babesa nabarmentzen du Erki-

ziak behin eta berriro, sentsibilizazioaz eta formazioaz gain. "Kontuan izan behar dugu gaizki ikusten dugun ikasle batengana joaten den irakasle horrek babestua sentitu behar duela, bestela irakaslearen esku erantzukizun handiegia uzten da, ikasle horren bizitza baitauka esku artean, eta, beraz, irakasleak babestua egon behar du". Irakasleek baliabideak behar dituzte, laguntza eta sarbide zuzena osasun alorrean, luzamendurik gabe. Baina Erkiziak nabarmentzen du ez direla nahikoa gaur egun dauden baliabideak horrelako egoera batean dagoen pertsona bati laguntzeko:



Irakaslea pertsona klabe bat da suizidioaren prebentzioan, eta horregatik egon behar du sentsibilizatua eta formatua, baina ardura osoa ez da berea

Agustin Erkizia, Biziraun elkartearen sortzailea

Irakasleez gain, suizidioa prebenitzeko beste hiru oinarri aktibatu behar dira, Erkiziaren arabera: gurasoen kolektiboa gaiaz sentsibilizatu behar da, hitzaldien bidez, adibidez; bigarrenik, ikasleek eurek ere gaiaz hausnartzeko aukera eduki behar dute; DBH1eko adina egokia iruditzen zaio horretarako: "12-13 urterekin erraz jabetzen dira suizidioaren gaiaz. Hori diogu, gertatu egiten delako; 13 urteko umeen suizidio kasuak dauzkagu elkartearen. 16-17 urte berandu da". Prebentzioan eragiteko laugarren oinarria "psikologia zentroetara sarbide zuzena" izan beharko litzateke: "Ikasleari lagunduko badio, helduleku sendoak behar ditu irakasleak: hau guztion ardura da, bakardadea haziz doa, eta elkar zaintza sustatu behar da".

"Irakasleek ere presionatu egin behar dute arriskuan egon daitezkeen gazteei erantzuteko baliabide gehiago egon daitezkeen. Irakaslea pertsona klabea da, eta horregatik egon behar du sentsibilizatua eta formatua, baina ardura osoa ez da berea".

Irakasleez gain, suizidioa prebenitzeko beste hiru oinarri aktibatu

SUIZIDIOAREN PREBENTZIOA HEZKUNTZA EREMUAN: MITOAK ETA EBIDENTZIAK

MITOA	EBIDENTZIA
Suizidioari buruz hitz egiteak suizidioa sustatzen du	Alderantziz: prebentzioa sendotzen du. Ideazio eta jokabide suizida partekatzen duten pertsonen hitz egiteak asko laguntzen die norbera hobeto ezagutzen, hobeto sentitzen eta arazoa gainditzeko trebetasun berriak ikasten.
Norbaitek suizidatu nahi badu, gutxi edo ezer ezin daiteke egin eragozteko	Jokabide suizidaren arriskua prebenitu daiteke; beraz, suizidio bidezko heriotza ere bai. Horregatik, suizidioaren arrisku faktoreak eta alarma seinaleak detektatzeko prestakuntza espezifikoa jaso behar da.
Kaltegarria da krisi suizida baten egoeran dagoen pertsona bati laguntzen saiatzea prestakuntza egokirik izan gabe	Solasaldi txikiek bizitzak salbatzen dituzte. Ideazio eta jokabide suizida duten pertsonen pertsona konprometituen laguntza behar dute. Ikasi jokabide suizidaren alarma seinaleak detektatzeko, eskaini iezaiozu arreta unean bertan eta lagundu iezaiozu laguntza bilatzen.
Norbaitek hitzez esaten badu suizidatu egingo dela, ez du egingo	Inoiz ez dira suizidio mehatxuak gutxietsi edo minimizatu behar. Asko zabaldutako mitoa da pertsona batek egintza suizida bat egingo duela esaten badu ez duela egingo (hain zuzen ere, horren berri eman duelako) uste izatea. Norbaitek suizidatzeko asmoa duela esaten badizu, hobe da aintzat hartzea eta arreta profesionala bilatzen laguntzea. Egia da gazte suizida guztiek ez dutela suizidio mehatxurik egiten eta suizidio mehatxuak egiten dituzten gazte guztiak ez direla suizidatzen. Hala ere, suizidio saioak egiten dituzten edo suizidio bidez hiltzen diren gazte gehienek suizidioko alarma seinaleak erakusten dituzte. Gogoan izan: pertsona gehienek suizidatzeko beren asmoen berri ematen dute, batez ere sufrimendu emozionaleko seinaleen bidez eta/edo jokabide suizidaren alarmen bidez.
Suizidatzen diren pertsonen nahasmendu mentala dute	Gaixotasun mentala arrisku faktore garrantzitsua izan arren, beti ez dago erlazionatua, eta suizidatzen diren guztiek ez dute aurretik nahasmendu mentalik. Suizidioa kausa anitzekoa da.

MITOA	EBIDENTZIA
Krisi suizida baten ondoren hobekuntza bat izateak arazoa gainditu dela esan nahi du	Suizidio batzuk pertsonak hobekuntza nabarmenak izan eta aste batzuetara egiten dira (batez ere depresioa izan duten pertsonen kasuan). Gomendioa da arreta handia jartzea susperraldi espontaneoetan, edo susperraldi hori pertsonak bizi dituen gertaera estresagarriekin bat ez datorrenean.
Suizidio saioa arreta dei bat da	Sekula ez da suizidio saio bat gutxietsi behar, eta are gutxiago hari garrantzia kendu, manipulazio jokabideak diruditen arren. Suizidatzen saiatzen den pertsonak sufrimendu psikologiko handia eta etsipen handia izan ohi ditu. Gainera, sentimendu eta pentsamendu mingarri horiek amaitzeko aukera bakarra heriotza dela uste du.
Autolesio ez-suizidak ez dira oso sarriak nerabezaroan	Autolesio ez-suizidak sarriagoak dira nerabezaroan eta gaztaroan helduaroan baino. Kontuan hartuta ideazio eta jokabide suizida sendoekin oso harreman estua dutela, beharrezkoa da behar bezalako arreta eskaintzea.
Suizidio saioa egintza heroikoa edo erromantikoa da	Zenbait filmetan horrela irudikatu den arren, suizidio egintzan ez dago ezer heroismoarekin, gloriarekin, erromantizismoarekin, ausardiarekin edo koldarkeriarekin zerikusirik duenik; aitzitik, sufrimendu psikologiko handia eta etsipen egoera handia jasaten ari den pertsona bati dagokio.
Suizidioa ihes egiteko eta arazoei aurre ez egiteko irtenbide erraza da. Koldarrak baino ez dira suizidatzen	Suizidio saioa erabakimen handia eskatzen duen egintza da. Egintza konplexua da, eta batzuetan ulertzen zaila; baina inola ere ez da irtenbide erraza. Gogoan izan: beste irteerarik aurkitzen ez duen eta denbora luzeegian sufritzen aritu den pertsona baten egintza da.
Aurrenerabeak ez dira potentzialki suizidak	Estatistika ofizialen arabera, aurrenerabezaroan ere gertatzen dira suizidioak. Beharrezkoa da jokabide suiziden prebentzio-lana oso adin goiztiarrean egitea.

* ITURRIA: Hezkuntza-Eremuan Jokabide Suizidaren Prebentzioa, Esku-Hartzea eta Posbentzioa Egiteko Estrategia, Eusko Jaurlaritzak.

ALARMA SEINALEAK

Hitzezko alarma seinaleak

Min hartzeko edo hiltzeko nahia hitzez adieraztea edo mehatxatzea: "Desagertu egin nahiko nuke"; "Ez dut bizitzen jarraitu nahi".

Etsipen sentimenduak adieraztea edo bizitzak zentzurik ez duela esatea: "Egoera hau ez da inoiz hobetuko".

Ezohiko agurrak egitea edo heriotzaz behin eta berriz hitz egitea: "Beti maiteko zaitut".

Ingurunearentzat karga izateko sentimendua komunikatzea: "Ez dut ama/aita kezkatu nahi".

Ez-hitzezko alarma seinaleak

Lehenago suizidio saio bat egin izana (arrisku handieneko aldia ondorengo 3-6 hilabeteen artekoa da).

Nortasunean, izaeran, animoan edo portaeran aldaketak izatea: oldarkortasuna eta suminkortasuna handitzea; mugei kontra egitea; edo ohikoa baino asalduago agertu ondoren bat-batean lasaitasun-aldi bat izatea.

Trauma osteko estresaren nahasmenduarekin lotutako sintoma klinikoak izatea.

Norberaren zaintza murriztea.

Interneten suizidio metodoei buruzko bilaketak egitea.

Kide ez izateko sentimendua, konektagarritasun txikia edo bakardadea.

Suizidioa gauzatzeko hainbat baliabide lortzen saiatzea (medikazio psikiatrikoa, suzko armak, etab.).

Eskola errendimendua eskastea eta eskolara ez joatea.

Familiartekoei edo lagunei gauza pertsonalak ematea; itxi gabe dauden gaiak ixten saiatzea; sare sozialetako kontuak ixtea.

Alkoholaren eta/edo bestelako drogen kontsumoa handitzea.

Familia-ingurunearekin, lagunekin edo laguntzako gizarte-sarearekin harremana galtzea.

Lo egiteko edo elikatzeko ohituren aldaketak izatea.

BABES FAKTOREAK

Faktore pertsonalak

Trebetasun sozial eta emozionalak garatzea.

Pertsonekin, familiarekin, komunitatearekin eta gizarte-erakundeekin konektagarritasuna izatea.

Autoestimu handia eta bizitzan bizi-asmo edo esanahi bat edukitzea.

Jarrera eta balio prosozialak izatea.

Familia faktoreak

Familiarekin harreman eta lotura seguruak izatea.

Familia ingurunean prestasun emozionala duten pertsonak eskura izatea.

Emozioak komunikatzeko aukera sentitzea.

Familia-ingurunean babestua sentitzea.

Eskola eta gizarte ingurune faktoreak

Parekoen arteko harreman eta lotura seguruak izatea.

Ingurunearekin harreman positiboak ezartzea (irakasleak barne).

Gizarte eta eskola eremuan gutxienez pertsona bat izatea hitz egiteko eta laguntzeko.

Aisialdian jarduera osasungarriak egitea (bai bakarrik bai taldeka): ariketa fisikoa, jarduera artistikoak, boluntariotzak, etab.

Komunikazio trebetasunetan hezteak. Laguntza eskatzen ikastea.

Arazoak konpontzeko, premiak aztertzeko eta informazioa bilatzeko hezteak.

Porrotean hezteak, balio positiboetan hezteak: errespetua eta elkartasuna.

BALIABIDEAK

- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren Hezkuntza Eremuan Jokabide Suizidaren Prebentzioa, Esku hartzea eta posbentzioa egiteko estrategia online dokumentua.

- Gazteei erantzuteko *Badabidebat* doako telefonoa: 900840335, online txata whatsapppe: 747421720.

- *Itxaropenaren* telefonoa: krisialdian: 717003717. Araba: 945 147 014 Bizkaia: 944 100 944 Gipuzkoa: 900 840 845. Nafarroa: 9448243040. Webgunea: git.eus.

- Osakidetzaren Buru osasun eskola: <https://www.osakidetza.euskadi.eus/osasun-mentala-suizidioa/webosk00-oskenf/eu/>



» Inmakulada ikastolako Bepiztu Batzarreko ikasleak Itxaso Urbietta eta Enara Larrain irakasleekin.

20

Suizidioaren prebentzioa, ikastorduetan

Tolosako Inmakulada Lanbide Heziketako ikastolak hezkuntza proiektuan txertatua dauka ikasleen ongizatearen zaintza.

O hikoia bihurtu zen Inmakulada ikastolan ere ikasleen artean, tarteka, antsietate krisiak bizitzea. “Tarteka” hori, “astero” bihurtu zen, ordea, pandemiaren ondoren. Hau da, berrogeita hamar bat antsietate krisialdi bizi zitzaizkiren ikasturte batean. Hezkuntza komunitateak, irakasleak eta zuzendaritzak, baina baita ikasleek ere, gaiari adarretatik heltzea erabaki zuten, eta ikasleen ongizate emozionalari arreta jartzea. Ezinbestekoa da ikaslea, pertsona ongi egoteko, eta funtsezkoa da baita ere, ikasketak

aurrera eramanez ahal izateko; Nahia Apeztegia Inmakuladako ikasleak dioten moduan, “ni ez banago ongi, nola eramango ditut ikasketak ongi aurrera?”.

Antsietate krisiak baino egoera larriagoak ere bizi izan dituzte Inmakuladan, Inmakuladan ere: ikasleren baten suizidio saiakerak, kasurako. Eta ez dute beste aldera begiratu, unean-unean artatu, osasungintzako baliabide urriekin moldatu eta suizidioaren prebentzioran lan egin dute Inmakuladan. Ana Monge zu-

zendariarekin batera, Enara Larrain eta Itxaso Urbietta irakasleak —Biziraun elkartearen kidea ere bada Urbietta— dira osasun emozionalari, baina bereziki suizidioaren prebentziora lan-keta eskaini diotenak. “Suizidioaren gaia gazteen artean egon badago, beraz, helduok eta, gure kasuan, hezitzaileok heltzen ez badiogu, zurrumurrueetatik eta usteetatik helduko diote ikasleek gaiari. Horretan ere lidertza egoki bat behar dute”, dio Larrainek. Haatik, irakasleak gaiari heltzeko, nondik eta nola heldu jakin behar du, Larrainek aburuz: “Gutxieneko formazio bat beharrezkoa dugu, isiltasuna ez da egokia baina ausardia gehiegi ere ez da eduki behar, zuzentzeaz hitz egin behar da. Ezin dugu suizidioaz hitz egin aukera bat balitz bezala, ‘Jon suizidatu da bullyinga jasaten zuelako’. Prebentzioran eragin nahi badugu, formazioa eta eskura ditugun materialak eta baliabideak ezagutu behar ditugu”. Formazio horretan, Urbietaren arabera, “suizidioari buruz barneratuta dauzkagun mitoak deseraikitzea eta alarma seinaleak ezagutzea funtsezkoa da, eta baita, kasu baten aurrean, pertsona hori bakarrik ez uzteko, eskura zer baliabide ditugun ezagutzea ere”. Urbietta eta Larrainek ustez, nerabeen geletan ohiko bihurtu diren asalduren inguruko formazioaz gain, irakasleak bestelako zeharkako gaitasun batzuk ere landu behar dituzte ikasleengana gerturatzeko eta harekin hitz egiteko. “Irakasleak ezin du ikaslearen egoera konpondu, baina lagundu diezaiokete bideratzen eta bakarrik ez uzten”.

Bepiztu Batzarra, buru osasunaz lasai hitz egiteko espazio segurua

Inmakuladak hezkuntza proiektuan txertatuta dauka ongizate emozionala. Ikasleen Bepiztu batzarra sortu zuten pandemia ostean, ikasleek eurek ongizate emozionalaz, baina bereziki suizidioaz hitz egiteko eta euren buruak formatzeko espazio segurua bat behar zutelako. Bi astez behin biltzen dira ikasleak batzarrean buru osasunari loturiko hainbat gai



Suizidioari dagokionez, irakasleok beste aldera begiratzea ez da aukera bat. Nola kontzientziatu irakasleak? Datuak ikusi besterik ez dago

Itxaso Urbietta, Biziraun elkartearen kidea eta Inmakuladako irakaslea

lantzeko. Hazitokia proiektua ere sortu dute eta astean lau orduz ongizate emozionalari hainbat modutan arreta eskaintzen diote: hiru hilekoz hiru hileko, dinamikak, materialak, gidoiak eta ekintza ludikoak prestatuak dituzte hainbat gai jorratzeko. “Lau ordu eskaintzen dizkiogu astean, eta inbertsio handia da, bai pertsonala ta baita ikasketaren prozesuan ere, baina emaitzak jasotzen ari gara: lehen astero antsietate krisi bat izaten genuen, eta orain ikaragarri murriztu dira halakoak”, azaldu du Larrainek.

Urbietarentzat ez da aukera bat, hezitzailearen egitekoa da bere gelako ikasleen ongizate emozionala zaintzea, eta beraz, suizidioaren prebentzioa presente izatea. “Suizidioari dagokionez, irakasleok beste aldera begiratzea ez da aukera bat. Nola kontzientziatu irakasleak? Datuak ikusi besterik ez dago. Ez dugu ezer egiten eta datuak gorantz doaz; beraz, ezer ez egiteak ez digu balio. Beldurra galdu behar diogu suizidioari buruz hitz egiteari, irakaslearen kezka eta zalantza mahai gainean jarri behar ditugu, eta geure buruak formatzeko pausoa eman behar dugu”.

21



Elena Herrán

IRAKASLEA ETA EHU-KO KALITATHEZ
TALDEKO DINAMIZATZAILEA

“ 0-3 etapako eskolatze goiztiarra kalitatez egin ezean, etorkizunean arazoak sortuko dira

*Sozializazio goiztiarra Haur Hezkuntzan (0-3 urte) izeneko monografikoa argitaratuko du **Hik Hasik** datorren udazkenean. EHUko KalitatHEZ taldearen lana da eta bertako kide eta dinamizatzaile da Elena Herrán. Erretiroa hartuta, haurtzaroaren eta Haur Hezkuntzako 0-3 etaparen gainean lanean jarraitzen du Herránek. Hezkuntza etapa guztietan irakaslea izan ondoren EHUko Hezkuntza Fakultateko irakasle izan da. Ibilbide luzea egin du eta psikologia eta psikomotrizitate arloko ikasketak egiteaz gain, Pikler pedagogo da. Berriki eman diote 2024ko Pikler saria eta Budapestetik bueltan elkartu da **Hik Hasirekin**.*



Zorionak, Elena. Budapestetik iritsi berria zara, Pikler Etxeak ematen duen saria jasota. Nolako esperientzia izan da?

Eskerrik asko, lehenik eta behin. Zaila da azaltzea. Nire bizitzan benetan gustuko dudan alorrean lan egiteko zortea izan dut; deskubritu nituenetik, haur txikien inguruan aritu naiz lanean, buru-belarri. Ez nuen halakorik inondik inora espero; eta are gutxiago saria. Oso berezia izan da saria jasotzea; azken batean, urteetako lanari egindako aitortpena izan da. Oso hunkigarria izan zen eta poz handia sentitu nuen. Jaso nuen, asko eskertu nuen eta, aldi berean, nolabaiteko konpromisoa hartu nuen lanean eta ikertzen jarraitzeko, Anna Tardosek (Emmi Pikkler pediateraren alaba eta Budapesteko Lóczy institutuko zuzendari ohia) hala eskatuta. Lóczy Etxeko kideak haur txikien hezkuntzaren militanteak dira: hezkuntza arloan lanean ari dira buru-belarri eta haurren onurarako eta pertsonen etorkizun osasuntsu baterako lanean ari direla sinesten dute.

Ikertzen jarraituko duzu, beraz, eta, azken batean, profesionalen prestakuntzarako oinarrien bila jarraituko duzu. Oso garrantzitsua da prestakuntza hori, ezta?

Bai, oso. Gaur egun hezkuntza fakultateetan ez ditugu haur txikien hezitzaile izango direnen jarrerak lantzen; informazioa eskaintzen dugu, ez formazioa. Irakasle deitzen ditugu ez hezitzaile, eta horrek bere esanahia du. Lóczyko hezitzaileek gauzak entrenamenduz ikasi izan dituzte beti, azalpen gutxi batzuk jasota, batez ere umea behatuz, mundua haren ikuspegitik ikus eta uler dezaten. Hemen, aldiz, formazio akademikoa hobetsi dugu eta ikasketak amaitu berri dituzten

hezitzaileek informazio gehiago edukita profesional hobeak izango direla uste dute, baina haur txikiekin daudenean, galduta sentitzen dira. Ez dute ulertzen ume txiki bat zer den, ezta garatzen edo ikasten nola doan ere. Eta ume txikiak hainbeste zeregin du eskolako ikasketekin hasi aurretik! Lóczy, umeekin zerbait ondo ez doanean, etengabe hutsetik hasi behar dela esaten da. Bertan sarritan erabiltzen den esaldi batek zera dio: “Dakiguna baino ez dugu ikusten”. Eta egia handia da: demagun ume batzuk zuhaitz baten ondoan daudela inurritegi bati begira, gainean hostoak jartzen... Begirada zabaldu ezean, oso zaila da jarduera horretan, natura bera, matematika, logika edo arreta eta jakin-mina ikustea.

Sozializazio goiztiarraren gaia landu duzue zuen lanean. 0 eta 3 urte bitarteko haur askok ordu ugari pasatzen dituzte haur-eskolan edo eskolan. Sozializazio-rako espazio garrantzitsu bihurtu al dira haur-eskolak azken urteotan?

Erabat. Haur-eskolen barnean, hainbat atal daude: alde batetik, hezitzaileak eta haien formazioa daude, bestetik enpresa dago –mugikortasuna kontratuak, lan-baldintzak...– eta, horrez gain, haur-eskolen baldintza fisikoak ere kontuan hartu behar dira. Uste baino konplexuagoa da dena eta baldintzen arabera, guraso gisa alaba edo seme txikia haur-eskolan lasaitasunez uztea, oso gogorra gerta daiteke. Ni ez naiz haur-eskolen aurka mintzatuko, jakina, baina ulertzen dut gurasoek zalantzak eduki ditzaketela. Profesional apartak behar dira eta, horretarako, irakasle ikasketetan akademikoa ez den formazio hori ere txertatu beharra dago. Formazio pertsonalagoa behar da, Lóczy egiten duten entrenamenduaren antzekoa; hezitzaileek eguneroko gauzak nola egin behar dituzten jakin behar dute eta horretan trebatu behar dira. Formazio akademikoa oso inportantea da, baina ezin gara horretara mugatu. Ikasleek onartzen dute, adibidez, sekula ez dutela pardelik aldatu, eta



Formazio pertsonalagoa behar da, Lóczy egiten duten entrenamenduaren antzekoa; hezitzaileek eguneroko gauzak nola egin behar dituzten jakin behar dute eta horretan trebatu behar dira

0-3ko hezitzaile izateko tituluarekin aterako dira unibertsitate-tik. Horiek, esate baterako, behin lanean hasita ikasten dituzte halako zaintzak, ez ikasketak egiten ari diren garaian. Horrez gain, instituzioek, ume txikiekin ere nolabaiteko uniformetasuna egotea nahi dute eta hori ez da posible: ez dira gauza bera Al-tzoko haur-eskola –txikia eta euskalduna –edo Arrigorriagako edo Bilboko eskola bat –askoz ere handiagoa eta euskal hiztun gutxiago duena–. Formazioari dagokionez, erabakiak goitik datoz, ez dira hezitzaileen interesak, jakintza edota esperientzia kontuan hartzen eta hori ere nahiko arazo larria da. Lehenik eta behin nolako profesional taldeak dauden, zer jakintza maila eta zer interes duten, zer hobetu nahi duten, zer aldatu nahi duten... ikusi beharko litzateke eta hori izan beharko litzateke heziketa talde onak izateko abiapuntua.

Hainbat hutsune daude. Esaterako, haur-eskoletan ez da patiorik egoten eta daudenak zementuz egindakoak dira, ez dago zuhaitzik, ez lorarik... Material gehienak, ekipamendua, objektuak edo jostailuak, berriz, ume handiagoentzat diseinatutakoak dira; oso antolatua, egituratuak... Etxean argi ikusten da: zergatik nahiago du umeak opariaren kutxarekin jolastu bertatik ateratako jostailuarekin baino? Ba jostailuak ez duelako aukera handirik ematen eta kutxak, aldiz, hamaika aukera ematen dituelako. Txikiek oso beharrezkoak dituzte euren mailarako egokiak diren jostailuak eta horiekin batera, bizitza arrunteko objektu seguruak: ontziak, koilarak, otzarak, liburuak... edo materialak: artilea, ehun zatiak, adarrak, pinaburuak, hostoak... Malgutasun handiz jokatu behar da horretan.



Ume txiki bat ahalik eta ordu gutxien eraman behar da haur-eskolara. Badira haur-eskolan egunero zazpi orduz egoten diren umeak eta hori ume txikiarentzat larregi da

Haurrak familiarekin egin ohi du lehen mailako sozializazioa eta eskola, bigarren mailako sozializazioari dagokio. Zer eragin du haurraren etxea utzi eta eskolara hain goiz joateak?

Denborak esango digu horren eragina zein den, baina, esate baterako, gizartearen psikologikoki arazo kezkarriak sortzen ari dira aspaldian: izaera ahulak, egonkortasunik eza, nortasun-nahasmenduak... Eta adituek diote teknologia berriek hori guztia areagotu dutela. Ume txiki bat ahalik eta ordu gutxien eraman behar da haur-eskolara. Badira haur-eskolan egunero zazpi orduz egoten diren umeak eta hori ume txikiarentzat larregi da. Badakit gaur egungo lan egoerak hori bultzatzen duela, baina gurasoek buruan izan beharko lukete umea halabeharrez uzten dutela baina, haien beharrez handia dutela hasierako urte horietan. Beraz, umearekin dauden denbora tarte horietan, kalitatezko uneak eskaini behar dizkiote. Umearekin egon behar dute, behar duen arreta eskainiz eta, batez ere, bere kabuz egin ezin duen horretan lagunduz. Horretan datza segurtasunak. Gurasoak umearekin gauzak egiten edo leku miragarrietara eramaten saiatzen dira sarritan, baina ume txikiarentzat lekurik preziatuena gurasoekin egotea da, familia edonon delarik ere. Parkera eramaten badute, haren ondoan bere beharrei adi egotea eta nekatuta ikusten badute, etxera joatea eskaintzea, adibidez. Norbere begirada norberarengandik harago luzatzea da, umea bera deskubritzeko. Erronka handia da, baina behar-beharrezkoa. Bestela, umeak jasoko duen mezua da ez dela garrantzitsua, inor ez dela harekin arduratuko, ezintasunen edo zailtasunen aurrean bakarrik dagoela... eta horrek aurrerantzean ondorio larriak ekarriko dizkio. 0-3 etapako eskolatze goiztiarra kalitatez egin ezean, arazoak sortuko dira. Adin tarte horretan emozioak dira umeak adierazteko duen modua eta horiek behar bezala kudeatzen ez badira, pertsona horrek jai izango du etorkizunean; beldurrak, larritasunak, antsietateak...

etengabe asaldatu dute.

Eskolan eta haur-eskolan, bereziki, curriculum harri bihurtu da heziketarako bidean. Irakasleak konturatzen dira curriculumera jotzen duten bakoitzean galduta daudela, beharrez bakoitzean indar handiagoa hartzen duelako. Curriculum gainjartzen da, kontzienteki edo inkontzienteki: koloreak lantzea, esate baterako. Koloreak arropan daude, kalean, edozein tokitan, eta horiek lantzeko ez dago curriculumaren beharrik, baina curriculum lasaigarria da eskolarentzat eta irakasleentzat. Hori errotik aldatu behar den arazo handia da, zeren erronka nagusia ume den pertsonaren portaeraren ulermena da eta osasuntsu gartzan jarrai dezan, dagozkion baldintza fisikoak eta giza baldintzak eskaintzea. Horrek ez du lekurik curriculumean; beste bat behar da.

Nolako giroa sortu behar da haur-eskolan etxetik eskolarako salto hori ahalik eta arinena izan dadin? Zer eskaini behar dio haur-eskolak haur txikiari?

Idea haur-eskola familiaren jarraipena izatea da, eta horretarako baldintzak egokitu behar dira. Hezitzailearentzat oso baliagarria izan daiteke bere ardurapean dagoen ume bakoitzaren etxean gauzak nola egiten diren ikustea: adibidez, egokitzen garaian gurasoak hezitzailearen aurrean umei pardela aldatzea, jaten emate edota nola hitz egiten dion ikustea. Hori guztia oso garrantzitsua da; urrezko informazioa ematen digu eta harremana nolakoa den ikusten dugu. Etxetik datorrena jaso behar da, etxeko giroa eta familia epaitu gabe eta gero, haur-eskolan, hori guztia kontuan izanda, bere bidea abiapuntu horretatik egin behar du. Hasiera batean etxeko era aintzat hartuta arituko dira, baina denboraren poderioz, haurrak eskolako giroan beste era batera jokatzeko eta bere ardura duen hezitzailearen erara egokitzen ikasiko du. Bestela, naturaren kontra goaz. Eskolako baldintzak eta etxekoak oso desberdinak dira.



Umea ez dago etxean bezala, bakarrik; taldean dago, talde hori txikia bada ere, eta haur-eskolako helduak profesionalak dira, ez senideak. Ondorioz, kontuan hartu behar da, haur-eskolako hezitzaileek umeekin duten harremana profesionala dela, oso desberdin maitatzen baita haurra etxean eta eskolan. Zer pentsa eman beharko lukeen Lóczyko beste esaldi bat da hau: "Hezitzaileak umea maite du umea zaintzen duelako eta amak umea zaintzen du umea maite duelako". Batetik besterako alde interesgarria da.

Haur-eskolako egun baten errepassoa egin duzue nolabait zuen lanean. Zer azpimarratu nahi izan duzue? Zein momentu nabarmendu nahi izan dituzue?

Behaketa bidez lortutako material asko genuen eta hori nolabait antolatzeke, egunaren ordenari jarraitzea erabaki genuen. Profesionalei kosta egiten zaie egunaren ordena zer den ulertzea: ordutegia eta egunaren ordena ez baitira gauza bera. Ume txikiarentzat egunaren ordena egunean zehar gertatuko diren gauzak zer ordenetan gertatuko diren izango da, baina berari ez zaio axola gertatzen dena 9:15etan edo 8:30etan gertatzen den, lehenago edo beranduago, egunero gertatuko baita. Goiz datozen umeen kasuan, eskainiko zaien arreta antolatzerakoan goiz etorri direla hartu behar da kontuan, horrek adierazten duelako goiz gosaldutela eta bazkaria ere goiz eman beharko zaiela, batez ere jatunak baldin badira. Hezitzailearentzat, aldiz, ordutegiak garrantzi handia du, lanera ordu jakin batean sartu behar duelako eta, ondoren, ordu jakin batean atera behar duelako. Hala ere, nahiz eta hezitzailearen ordutegia oso zehatza izan, umea berdin-berdin koka daiteke haren zereginaren erdigunean, umearen erritmoen eta beharrezan arabera lan eginez.

Bestalde, adibideak jartzerakoan, adinak nahastea erabaki genuen 0-3 etapako garapen sozialari ikuspegi zabalago bat eman nahi



Etetik datorrena jaso behar da, etxeko giroa eta familia epaitu gabe eta gero, haur-eskolak, hori guztia kontuan izanda, bere bidea abiapuntu horretatik egin behar du

geniolako. Normalean, sailkapenak adinaren arabera egiten dira eta, gehienetan, horiei marmia atera beharrean, profesionalak sailkapena zuzentzera edo haien errealitatera egokitzen ez dela argudiatzera mugatzen dira. Hori saihesteko nahasi ditugu adinak.

Baina badira egunero gertatzen ez diren baina garrantzitsuak diren gertakariak ere, hezitzaileek aintzat hartu behar dituztenak...

Bai, asko gainera. Esate baterako, tarteka izaten dira jai eta egun bereziak ere. Ospakizun asko izugarriak izaten dira ume txikiarentzat. Era horretako hausnarketa bat plazaratzea interesgarria iruditu zitzaigun batzuetan ume txikiak gorriak pasatzen dituztelako ospakizunetan parte hartzera behartuta. Heziketa taldeak sakon hausnartu beharko luke horiek egiteak merezi ote duen.

Adibide praktikoak dira, kasu errealetan oinarrituak. Eta ondoren, zuen irakurketa egin duzue egoera horiei aurre egiteko tresnak eskainiz.

0-3 tartean dena sozializazioa da. Hezitzaileak eguneroko jardunean zer gauza kontuan har ditzakeen azaltzen saiatu gara. Konturatu gara hainbat kontu ez direla erraz ulertzen, eta argitu egin behar direla: badira zaintzak, gurasoekiko harremanak, arazoak... Baina horren guztiaren atzean dagoena agerian utzi nahi izan dugu amaieran laburpen txiki bat eginez. Haur bat jolasean ari bada –materialak alderatzen edo koloreak begiratzen, adibidez–, hortik harago, hainbat alderdi aintzat hartu beharko dira: duen postura fisikoa, jostailuak erabiltzeko arauak dioena errespetatzeko gai ote den –bera zerbaitekin jolasten ari den bitartean berea dela eta ezin diola inork kendu–, eta abar. Adibide bakoitzarekin batera gorabehera horiek azaltzeko eta hezitzaileak kontuan hartu beharreko beste irizpide batzuk jasotzeko ahalegina egin dugu. Begiak apur bat gehiago zabaltzea da helburua.

Hezitzaileek familiekin duten harremanak leku berezia hartzen du etapa horretan. Hurrengo etapetan baina estuagoa izaten al da?

Bai; erabat. Adin horretan hezitzaileen eta familiaren arteko harremana oso garrantzitsua da. Hausnarketan familiarekiko errespetu osoa islatu nahi izan dugu zeren eskolak, bere kabuz eta familia kontuan hartu gabe, ezin du ezer egin. Haur-eskola familiaren ordezkoa da hura ez dagoen bitartean. Ez gehiago, ezta gutxiago ere. Eskola oso garrantzitsua da guraso gehientzat eta batzuentzat lagungarria ere bada: hainbat momentutan euren erabakiak baieztatzen eta beste batzuetan aldaketak egiteko hausnartzen laguntzen die, adibidez. Gurasoentzat oso baliagarria da eguneko informazioa jasotzea eta egoerak ulertzen lagunduz gero, askoz ere patxada handiagoarekin aritzen dira egunerokoan euren seme-alabekin.

Galdera bat planteatzen duzue hausnarketan: ea 0-3 urteetan sozializazio optimoa sustatzeko modurik ba ote den. Ba al da modurik?

Bai, bada. Baina horretarako laguntza handia, jakintza handia eta baliabide anitzak eta egokiak behar dira. Hezitzaileek egonkortasunik izango balute, hezkuntza proiektuak aurrera eramateko askoz ere baldintza hobekiago izango lituzkete. Zaila da, zeren eskola bakoitzak bere dinamika du, baina denak umea erdigunean jartzen duten dinamikak sortzen saiatuko balira eta hezkuntza estilo jakin bat balego, askoz ere errazagoa izango litzateke guztia. Kasu horretan hezitzaileak umeekiko, taldearekiko edota ordutegiekiko egokitzapena egin beharko luke, baina eskola guztietan oinarri bera izango litzateke eta horrek profesionalen lana asko erraztuko luke. Gauzak bestelakoak dira, ordea, eta hezitzaileek hutsetik hasi behar dute etengabe, zoritxarrez.



Zaila da, zeren eskola bakoitzak bere dinamika du, baina denak umea erdigunean jartzen duten dinamikak sortzen saiatuko balira eta hezkuntza estilo jakin bat balego, askoz ere errazagoa izango litzateke guztia



Galdera laburrak

01.

Eskola garaiko oroitzapen on bat?

Irakasle batek tebeoak uzten zizkigun ikasgelan, tarteka irakurtzeko.

02.

Eskola garaiko oroitzapen txar bat?

Cara al sol abestu behar izatea.

03.

Nolako eskola amesten duzu?

Gizakiarentzat egindako eskola, pertsonengan benetan sinesten duena. Horiek dira benetan kalitatezko eskolak: pertsonengatik merezimenduengatik baino askoz ere gehiago arduratzen direnak.

04.

Zuretzat garrantzitsua den balore bat?

Bat baino, hiru, hezteko eta bizitzeko niretzat ezinbestekoak direnak: konfiantza, onarpena eta errespetua.

05.

Hezkuntzari buruzko film bat edo liburu bat?

Serie daniar bat aipatuko nuke: *Rita*.



Esperientzia

Guraso bilera “zaharkituak” berrikusiz

Euskararen erabilerari eutsiz, jatorri ugaritako familien arteko elkarbizitza zaintzeko prozesua egiten ari da Zaldibiako Lardizabal eskola, HUHEZIKo eta UEMAKo adituekin. Ikasturte honetan, urrats bat egin dute aurrera elkarrekin: ikasturte hasierako guraso bilerak eraldatu dituzte. HUHEZIKo *Euskara eta kulturartekotasuna hezkuntza komunitateetan* jardunaldien bigarren ekitaldian eman dute esperientziaren berri.



» Irakasleak gurasoen aurrean hizketan, eta atzean beste irakasle bat Telegram bidez itzulpena eskaintzen.

Zaldibia herri euskalduna da, euskararen arnagune bat, UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko herria; baina, azken urteetan izandako immigrazio handiaren ondorioz, aldatzen ari da egoera soziolinguistikoa. Ez euskara eta ez gaztelania ez dakiten familiak etorri dira Zaldibiara, jatorria nagusiki Marokon, Errumanian edo Pakistanen dutenak, eta elkarbizitza zaildu egin da. Hezkuntzara etorrita, familia berriak euskara ez jakiteagatik hezkuntza komunitateko bizitzatik kanpo geratzen hasiak zirela ohartu zen eskola, hala zuzendaritza nola Ausa Gaztelu guraso elkarteak. 2020an, korapiloa askatzen hasteko bideari ekin zion hezkuntza komunitateak, asmo argi batekin: euskaraz bizitzen jarraitzea eta, aldi berean, elkarbizitza sustatzea. 2021-2022 ikasturtean abiatu zuen Zaldibiako Lardizabal eskolak euskararen eta kulturartekotasunaren proiektua, HUHEZI Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien

Fakultateko adituen eta UEMAKo teknikarien laguntzarekin, eta, ordudunik, plano teorikoan ez ezik, eguneroko bizitzan ere eragin duten urratsak egin ditu Lardizabal eskolak. Aurten, beste urrats praktiko bat egin dute elkarrekin: ikasturte hasierako guraso bileren forma aldatu dute, euskara erdigunean jarrita, familien elkarbizitza bultzatzeko.

Bi arrazoirengatik proposatu zioten HUHEZIKo Karmele Perez eta Amelia Barquin irakasleek Lardizabal eskolako elkarbizitza sareko talde eragileari ikasturte hasierako guraso bilerak eraldatzea: batetik, hizkuntza irizpideengatik eta bestetik, parte hartzea sustatzeko. “Badakigu ikasturte hasierako guraso bilera garrantzitsua dela: guraso gehienak elkartzen dira bilera horietan, eta une horretan hasten da harremana tutorearekin. Baina, batzuetan, irakasleok ez gara oso pozik gelditzen formarekin. Zergatik berrikusi behar dira gurasoekin egiten diren lehenengo bilera

horiek? Batetik, hizkuntza irizpideak berrikusi behar direlako eta, bestetik, bileraren egitura bera berrikusi behar delako; bilera horren forma ez da aldatu azken hamar-hogei urteotan zehar”, azaldu zuen HUHEZIKo Amelia Barquin irakasle eta ikertzaileak. “Zaldibiako esperientziak erakutsi digu udalerrri euskaldunetan behintzat posible dela guraso guztiok bat eginda ikasgela berean eta espazioa eta denbora partekatuz elkar ulertzea eta informazioa eskuratzea”.

Euskara, komunikazioaren erdigunean

Hizkuntzen kudeaketari dagokionez, ikastetxe askok ez daukate irizpide argirik ikasturte hasierako bileretarako; hala ikusi dute HUHEZIKo ikertzaileek. “Orain arte, ikasturte hasierako lehenengo bileran, hizkuntzei dagokienez, hainbat estrategia erabili dira. Testuinguruaren arabera, euskaraz soilik egin izan dira bilerak; edo euskaraz eta, bukaeran, laburpena egin izan da gaztelaniaz; edo, leku batzuetan, gaztelaniaz egin dira. Beste batzuetan, bi bilerak egiten dira, euskaraz bata eta gaztelaniaz bestea; edo *xuxurlariak* erabiltzen dira; edo PowerPointak itzultzen dira... Berdin da zer egiten dugun hizkuntzen kudeaketaren gainean, ez gara oso pozik gelditzen”. Zaldibian, premiazko zatik jo dute eskola osoak ikasgela guztietako bileretarako irizpide bateratuak edukitzea, eta hori erdiesteko, aldibereko itzulpena probatu zuten. Bilera euskaraz egiten du irakasleak, eta, itzulpena behar duten gurasoek aldibereko gaztelaniako itzulpena jasotzen dute. Bileretan parte hartu duten gurasoek ondo hartu dute, Barquinek azaldu zuenez: “Guraso guztiak bilera berean elkarrekin egoteak poza ematen du, eta, gainera, denbora laburragoa da, ez baita itzulpenarekin denbora galtzen”.

Itzulpena eskolako irakasle batek egiten du, ikasgela bazterretik, eta premia duenak



Amelia Barquin eta Eider Amundarain, HUHEZIn egin zuten aurkezpenean.

bere sakelakoaren bidez entzuten du aldi berean, Telegram aplikazioarekin. Itzulpena behar duen pertsona bakarra dagoenean ere, egokiagozat jotzen dute adituek Telegram aplikazioa erabiltzea, *xuxurlaria* ondoan edukitzea baino. “Era horretan, pertsona hori nahi duen lekuan eser daiteke, eta itzultzaileak ez du haren alboan egon beharrik; beraz, ez daude gertutasun fisikora behartuta”.

Izan diren zailtasunak, oro har, teknikoak izan dira. Telegram kanala aurrez instalatu eta prestatu behar da; wifia behar da, eta entzungailuak, eta bateria zaindu behar da... Bilera aldi berean itzultzeak buruhausteak ekar diezazkioke lan hori egitea egokitu zaion irakasleari, ez baitira itzultzaile profesionalak. “Badakigu itzulpenak ez direla perfektuak

izaten, baina konplizitatez eta kariñoz egiten dira, eta inor ez da kexatu itzulpen kaxkarrak egin diotelako. Pertsonak eskertzen dute konplizitatea”, adierazi zuen Barquinek. Zalantzarik ere sortu zaie bidean: “Familia etorri berri askoren etxeko hizkuntza ez da gaztelania, eta, bilerak gaztelaniara itzultzen baditugu, gaztelania indartzen ari ote gara? Badaukagu kezka hori. Dauzkagun baliabideen arabera egiten dugu lan eta taldean euskaraz eta arabieraz egiteko gai den pertsona bat badaukagu, bikain. Pertsona horien bila gabiltza, eta pertsona horiek gure ikasleak izango direla pentsatzen dugu”.

Hizkuntzen kudeaketaz gain, ikasturte hasierako guraso bileren forma ere aldatzea proposatu zieten HUHEZIKo adituek Lardizabal



Zaldibiako esperientziak erakutsi digu udalerrri euskaldunetan behintzat posible dela guraso guztiok bat eginda, ikasgela berean eta espazioa eta denbora partekatuz, elkar ulertzea eta informazioa eskuratzea

Amelia Barquin, HUHEZIKo iraslea eta ikerlarria

eskolako irakasleei. “Bileren egitura zaharkituta gelditu dela iruditzen zaigu; irakasleak hitz egiten du, eta, bukaeran, gurasoek galderak egin ditzakete, edo zerbait esan dezakete; baina, oro har, komunikazioa norabide bakarrekoa izaten da. Dagoeneko ez dugu horrela jarduten ikasleekin, eta, beraz, gurasoekin jarduteko modua aldatzea proposatu genien”. Bi zatiko bilerak egitea proposatu zieten Lardizabal eskolakoei gurasoen parte hartzea, komunikazioa eta elkarbizitza sustatzeko. Lehenengo atalean, irakasleak ohiko azalpenak ematen ditu, eta, bigarren zatian, elkarrekintzarako denbora hartzen da.

Bileraren bigarren partean, parte hartzeko saio bat aurkezten die tutoreak gurasoei. “Lau, bost edo sei laguneko taldeetan jarrita, eskolako gai baten gainean dinamika bat egitea proposatzen diegu, elkarrekin gogoeta egin dezaten, eta, gero, taldean atera dena ikasgelako beste gurasoekin partekatzen da. Amaitzeko, jasotze ekintza egiten da. Jarduera horrek elkarrekin hitz egiteko eta elkar apur bat ezagutzeko aukera ematen die familiei. Dinamikak harremana, komunikazioa eta parte hartzea dakartza. Guraso bileran 20 bat minutuz gai bati buruz giro onean hizketan aritu badira, gero, elkar agurtuko dute guraso horiek eskola atarian edo kalean, eta, agian, hitz batzuk trukatuko dituzte herrian. Hori gertatzen dela esan digute”, azaldu du Barquinek.

Helburuak bete ahal izateko, funtsezkoa da parte hartzea. Horregatik, gurasoak bilerara erakartzea beharrezkoa denez, motibazioan eragiteko premia ikusi dute HUHEZIKoek: “Irakasleek diote bileretara guraso gehiago etortzea nahiko luketela. Hain zuzen ere, gehien behar dutenak, atzerritar jatorriko guraso batzuk, izan ohi dira gehien huts egiten dutenak”. Horiek ere bilerara erakartzeko, hainbat estrategia proposatu zizkieten HUHEZIKoek Lardizabalgoei: batetik, umeek eurek egiten

Bileretarako galderak

- Zer egin dezakegu gure umeei laguntzeko haien artean harreman onak izan ditzaten?
- Nola susta edo hobetu genezake familien arteko harremana eskolan?
- Zer da zuretzat garrantzitsua edo eskolak kontuan hartzea nahiko zenukeena?
- Zein da eskolako alderdirik onena? Zer da gehien balioesten duzuna?
- Nola ospatu genitzake umeen urtebetetzeak eskolan, modu inklusibo batean?
- Nola kudea genitzake umeen arteko istiluak?
- Zer ekarpen egin dezakete gurasoek eskolan?
- Eskolara zer egitera etorri nahi duzu?
- Zer espero duzu ikasturte berri honetan?



Talde txikietako dinamiketan gurasoen artean gatazkak sortuko ote ziren kezka zuten irakasleek. Gero, ordea, balorazio ona egin dute talde dinamikez

Eider Amundarain, Lardizabal eskolako zuzendaria



» Lardizabal eskolako hainbat guraso bileran, talde txikietako dinamikan.

dituzte gurasoentzako gonbidapenak ikasgelan; bestetik, umeek oparixko bana prestatzen dute gurasoentzat. Era berean, ideia ona izan daiteke bilera amaieran gurasoek seme-alabentzat opari bat egitea ere...

Aurrera begira, Zaldibiako elkarbizitza prozesuko guraso bilerei dagokienez, bi erronka zehaztu zituen Barquinek: “Batetik, irakasle batzuen erresistentziak kudeatzea; eta bestetik, sistematizatzea, ongi ateratzen diren estrategiak mantendu egin behar baitira. Aldaketa xumea dela esan liteke, baina, aldi berean, oso indartsua. Hau probatu dugu, eta ezin da atzera egin; ezin ditugu bilerak lehen egiten genituen bezala egin”.

Zaldibian ez ezik, UEMAKo beste hainbat herritan ere ari dira *Euskara eta kulturartekotasuna herri euskaldunetan* egitasmoa garatzen. 2022-2023 ikasturtean, Aizarnazabalen, Ibarra, Leitza eta Ondarroan landu zuen


UEMAk egitasmoa, eskolekin. Ikasturte honetan, berriz, Alegia, Arbizu, Areatza, Asteasu, Azpeitia, Bera, Itsasondo, Legorreta, Lizartza, Markina-Xemein, Mutriku, Oñati eta Oriora zabaldu dute egitasmoa. Horietan guztietan, guraso bilerak Zaldibiako eskema berriarekin egitea proposatu dute HUHEZIKo adituek.

Zaldibiako irakasleen eta gurasoen balorazioa

Lardizabal eskolako zuzendari Eider Amundarainek adierazi zuenez, ez zuten espero HUHEZIKo irakasleek ikasturte hasierako guraso bilerak aldatzea proposatuko zietenik “zaharkituta” zeudelako. “Gure hasierako kezka euskararen eta kulturartekotasunaren gainekoa zen, eta gure nahia ikasgelako bilera guraso guztiek ulertzea zen, ez ikasgelako bilera aldatzea. Eskola publikoan, irakasle berri pila bat izaten dugu ikasturte hasieran, eta lehendik ere urduritasun eta lan handia

Lardizabal eskolaren arabera, bileretan zaindu beharreko ezaugarriak

- Garrantzitsua da bileretara joatea. Helburuak betetzeko, gurasoen parte hartzea zaindu behar da. Bileretara joan daitezen motibatu behar dira, behar den kasuetan tutoreak abisu zehatzak emanaz. Garrantzitsua da tutoreak jakitea nor etorriko den bilerara, eta, beraz, gurasoek aurrez jakinaraztea joango den ala ez.
- Denbora eman behar zaio gonbidapenak ongi prestatzeari.
- Arlo teknikoak zaindu behar dira, bilera aurretik eta bileran zehar. Pertsona batek hartu behar du horren ardura: entzungailuak, wifia, Telegram aplikazioa telefono guztietara egokitzea...
- Irakasle berriei laguntza eman behar zaie, eta ongi azaldu behar zaizkie proiektuaren zehaztasunak.
- Zaintza zerbitzua eskaintzen da bilera guztietan, haur txikiak zaintzeko, eta irakasle batek egiten du zaintza. Jendea bilerara etorriko dela ziurtatzeko garaian, garrantzitsua da familia batzuentzat zaintza zerbitzua emango dela jakitea.
- Gurasoen kokapena ere zaintzen dugu: ez dira edozein modutan esertzen, ez biribil handian gaudenean eta ez talde txikietan gaudenean ere.
- Ama hizkuntzekiko keinu bat izaten dugu; hasieran eta bukaeran, hitz batzuk egiten ditugu gurasoen jatorriko hizkuntzetan.
- Garrantzitsua da bilera laburra izatea: azalpena eta talde txikiko dinamika ordu-betean egin behar ditugu.
- Ziurtatu behar da haur guztiek izango dutela gurasoen oparia. Gurasoren bat ez bada bilerara joan eta ez badio seme-ari edo alabari oparirik egin, beste haurrei ere ez zaie oparia emango, guztiek jasotzeko aukera izan arte.
- Argazki bat bidal daiteke gurasoen Telegram taldeetara bileran parte hartu izanagatik eskerrak emateko.



» Gurasoek bileran euren seme-alabei idatzitako mezuak.

aurrez prestatzen ere. Bi irakaslek aurkezpena egiten dute; beste irakasle batek itzulpena egiten du, eta beste batek, zaintza lana. Eskolako helburuekin lerrotatua dago eskola bilera, eta, beraz, beste nonbaitetik kendu, eta horri eman behar zaio ondo egiteko behar den denbora". Irakasle berri bat datorrenean, beti beste irakasle baten laguntza daukela adierazi zuen zuzendariak. "Guraso berriei bezala, irakasle berri guztiei ongi eman behar zaie egitasmoaren berri; garrantzitsua da guztiek esparrua ongi ezagutzea".

Abantailen artean, gurasoen kolaborazioa nabarmendu zuen zuzendariak: "Funtsezkoa izan da guraso konplizeak lortzea". Gurasoen balorazioak ere jaso zituzten, egitura berriarekin egindako bileren amaieran: "Gurasoek nabarmendu zuten asko gustatu zitzaizela talde dinamiketan hitz egiteko tartea edukitzea, egunerokoan ez baitute halako espazio-

rik edukitzen. Komunikazioa, gertutasuna eta gurasoen eta irakasleen artean sortzen den giroa baloratu zuten. Gurasoek erabakitzeo aukera izan nahi dute eskolan, eta aurrera begirako bilerak egitura berriarekin egitea eskatu dute".

Ondorioa da lan gehiago egin behar dela baina gurasoak eta irakasleak gustura sentitzen direla, Amundarainek adierazi zuenez. Hain ona izan da esperientzia, ezen ikasturtean zehar bigarren guraso bilera egiten hasi baitira Zaldibian, eta ez zuten halakorik egiten aurrez. Euskaraz, aldibereko itzulpenarekin eta egitura berriarekin egiten dute bigarren bilera hori ere. Lehen atalean, ikasturtean egiten ari diren lanari buruzko azalpenak ematen ditu tutoreak, eta, bigarren zatian, talde txikietan, ikasgelakoei interesatzen zaien gai baten gaineko solasaldiak egiten dituzte gurasoek.

ekartzen duen bilera izaten da ikasturte hasierakoa. HUEZILkoak eurak etorri ziren eskolara, klaustro osoari azalpenak ematera, eta berehala hasi ginen denok lanean". Irakasle guztiek eraldatu zituzten guraso bilerak, hizkuntzen kudeaketari eta egiturari dagokienez.

Irakasleen balorazioa garrantzitsua izan da esperientzia honetan. "Irakasleen iritziei dagokienez, nola sentitu diren galdetu die-

gunean, urduritasuna aipatu digute, batetik, ikasgelako bilera urduritasuna sortzen duen bilera delako beti; baina, bestetik, talde txikietako dinamiketan gurasoen artean gatazkak sortuko ote ziren kezka zuten irakasleek. Gero, ordea, balorazio ona egin dute talde dinamikez", Amundarainek azaldu zuenez. Egitura berriak dakartzan zailtasunen artean, lan gehiago egin beharra nabarmendu dute irakasleek. "Ikasgelako bilera bakoitzean, lau irakaslek hartzen dute parte, eta baita bilera

Psikologoaren figura eskolan: zerbitzu bat baino gehiago, behar bat

Ekarpena

Osasun mentala irakaskuntzaren eremua gainditzen duen errealitatea da, eta gero eta handiagoa da laguntza behar duten ikasleen kopurua. Hori ikusita, Unamunzaga Eskolak, Erriberabeitiko Udalarekin elkarlanean, figura hori eskola barruan modu iraunkorrean izatea lortu du.



Sandra Sánchez Rabadan

Unamunzaga eskolako Berrikuntza Arduraduna, Haur Hezkuntzako koordinatzailea eta eskolako proiektuen arduraduna

Eva Iglesias Calabria

Unamunzaga eskolako psikologoa, AA01241 elkargokidea

2023ko udan, Erriberabeitiko alkatearekin bildu ginenean eta gure beharrak zein ziren galdetu zigutenean, argi geneukan: psikologo bat behar genuen.

Ordutik, Aiaraldeko Etxaurren Ikastola ezagutu eta hango psikologoa, Zuriñe Iglesias, erreferente harturik —figura iraunkorra da ikastolan duela hamarkada bat baino lehenagotik—, elkarlanean hasi ziren bi eskoletako psikologoak.

“Ezin duzu errendimendu akademiko ona eman, emozionalki ondo ez bazaude”, dio Unamunzaga Eskolako Eva Iglesias psikologoak. “Kasu larrienak, jakina, suizidioak dira, baina, egoera horretara iritsi aurretik, kasu asko artatu beharko lirakeke. Kasketa asko izaten dituen bi urteko haurra eta halakoak nola kudeatu ez dakien familia bat, esaterako, nahiz azterketei nola aurre egin ez dakiten

eta horrek larritasun egoerak sortzen dizkieten ikasleak”.

Hezkuntza Sailak ez du eskola guztietan psikologoa izatea aurreikusten, eta ez du haren figura beharrezkotzat jotzen, hezkuntza komunitatearen prestakuntzan baitu jarrita fokua, eta, hala, hezkuntza komunitate osoak partekatu behar du ikasleen osasun mentalari dagokion arreta hori.

Irakasleak prestatzen saiatzen dira, ikasleei tresnak ematen, prestakuntzak eskaintzen... baina ez da nahikoa: hasteko, irakasle guztiek ez dutelako oinarrizko prestakuntzarik osasun mentalean; bestetik, ez direlako psikologoak, eta, gainera, kasu horiek Osakidetzara bideratu behar direla uste delako. Baina euskal osasun zerbitzua kolapsatuta dago.

Konponbidea arreta pribatua izan liteke, baina

familia batzuek ezin dute ordaindu. Eta zaila da kontsulta pribatuetan ere hitzordua lortzea. Gainera, laguntza psikologikoa behar duen adingabe bakoitzeko, "ohikoena da familia ere tratatu behar izatea. Testuinguru osoari lagundu behar diozu. Hitzordua ez da pertsona bakarrarentzat, adingabearentzat bakarrik, inguru guztiari erreparatu behar baitzaio" dio Iglesiasek, Unamunzaga Eskolako psikologoak. "Eta ez dugu ahaztu behar osasun mentaleko arreta eskubide bat dela, baina ez da behar bezala artatzen", salatu du.

Beraz, psikologo batek testuinguru ezin hobea du ikastetxean bere lana egiteko, osasun mentala lantzeko. Haurrek eskolan igarotzen dute beren egunaren zati handi bat. Bertan aukera handia dugu haurrak maila sozialean (parekoekin, helduekin eta familiekin) nola erlazionatzen diren behatzeko. Normalean, seguru sentitzen dira, eta, beraz, leku egokia da ingurutik atera gabe artatzeko.

Itunpeko ikastetxe batzuek psikologo bat kontratatzen dute beren ikasleak artatzeko; Etxaurren Ikastola publikoaren kasuan, aldiz, guraso elkartearen bitartez kudeatzen da psikologoaren laguntza.

"Ikastetxean saiatzen bazara, esku hartzea patologizatzea saihesten duzu, kanpoko psikologo batengana bideratzen duzunean ez bezala. Askotan, nahikoa izaten da esku hartze txiki batekin. Ikaslearekin hitz eginez, denbora labur batez harekin egonez eta zer esan jakinez, kalte handiagoak saihesten dira. Gainera, ikastetxearen barruan egiten bada, ez duzu haurra nabarmen uzten, ez da desberdin sentitzen, eta hobea da hori haientzat", dio Eva Iglesias adituak.

Hala ere, hezkuntzako psikologoaren "diziplina eremua" hezkuntza arloan diharduten beste profesional batzuekin nahasteko joera dago, hala nola aholkulariekin edo orientatzaileekin.

Hezkuntzako psikologoaren funtzioak

Psikologoaren Elkargo Ofizialak hezkuntzako psikologoaren zereginak definitzen ditu, hezkuntza arloarekin lotutako profesionalek betetzen dituzten beste funtzio batzuetatik bereizteko.

- **Ikasleen hezkuntza eskakizunen aurrean esku hartzen du.** Ikasle bakoitzaren hezkuntza premiak alde aurretik hautemateaz arduratzen da, ikasle horien prestakuntza esperientzia hobetuko duen ekintza plan bat diseinatzeko, eta beste trebetasun psikologiko batzuk ere lantzen ditu, hala nola bakarrik egoten ikastea.

- **Aholkularitza profesionala eman dezake.** Ikasleen edo pertsonen gaitasunak, talentuak eta bokazioak identifikatzen ditu, helburu profesionalen irismena eta erabakiak hartzea modu asertiboan sustatzeko.

- **Sortu daitezkeen arazoak saihesteko neurriak aurreikusten ditu.** Ikaslearen familiaren eta erakundearen testuingurua ezagutzen du, parte hartzen duten erakundearen jardunari buruzko diagnostiko bat egiteko eta hezkuntza esperientzian arazoak saihesteko.

- **Gizarte eta hezkuntza arloko esku hartzea aztertzen du.** Eskolaz kanpoko gizarte eremuak ikaslearen bizitza akademikoan nola eragiten duen eta hezkuntza hobetzeari begira nola esku hartzen duen aztertzen du.

- **Hezkuntza ereduak proposatzen ditu.** Familiari aholkuak ematen dizkio, eta familiako hezkuntza ereduak sortzen ditu, bizi kalitatea hobetzeko.

- **Ikerketa eta irakaskuntza funtzioak betetzen ditu.** Hezkuntza teoriari eta, oro har, psikologiaren eremuari buruzko ikerketak egiten ditu,



» Haurrak psikologoarekin lanketa bat egiten.

hezkuntza portaera berezia azaltzeko eta kasu konplexuetan jarraitu beharreko orientabideak eta prozedurak babesteko.

Hezkuntzako psikologoaren errealitatea

Gezurra badirudi ere, hezkuntzako psikologoek beren lan profesional espezifikokoaren aintzatespenik eza, gobernu erakundearen laguntza eskasa eta beren jardunaren aurkako hezkuntza sistema izaten dituzte aurrez aurre.

- **Ez dute ikusgarritasunik** berritzeguneen, zuzendaritzen, familien eta ordezkarien komunitate askoren aldetik. Botere publikoko arduradunek ere ez dituzte kontuan hartzen profesional horien eginkizunak, eta euren eskumenak deuseztatzen dituzte, ez dutelako nahikoa prestutasun eta ezagutza.

- **Eginkizunak mugatzen zaizkie,** beren konpetentzia profesionalak arrazoi moduan jarritz. Onartezina da administrazio publikoek psikologoaren lana orientatzaile edo aholkulari batek egin dezakeela aitortzea.

- **Administrazio publikoak ez daki zein diren hezkuntzako psikologoaren zeregin espezifikokoak,** eta haien lanpostuan orientatzaileak edo pedagogoak aritu daitezke.

- **Baliabideak urriak** dira adar zientifiko hori garatzeko, eta, beraz, gero eta txikiagoak dira hezkuntza arloko ekarpen teorikoak.

- **Administrazio publikoko instantziek ez dituzte kontuan hartzen** psikologoak eskola eremuan duen balioari buruz komunitate zientifikoak eman dituen gomendioak.

Horren ondorioz, hezkuntzako psikologoa, alde batetik, oso funtzio espezifikokoak dituen profesionala da, ikasle guztien hezkuntza kalitatea hobetzeko prozesuetan eraginkortasunez esku hartzeko gai dena, eta, bestetik, komunitateak gutxi ezagutzen duen profesionala da. Beraz, oraingoan zortea dugu Unamunzaga Eskolan, askoren ezagutza urria bada ere, psikologoa daukagulako ikasleentzat, familientzat eta irakasleentzat, horretarako beharra eta eskubidea dugulako. Gurea da etorkizuna.

2024-2025 IKASTURTEKO ESKAINTZA

hik hasi laborategia

Adituaren mintzaldia | Irakasleen arteko solasaldia | Gako praktikoak

- URRIAK 2, 9, 16 eta 23**
Komunikazio Ez-Bortitza
Nerea Mendizabal
Gaian interesa duen edonori eta batez ere Lehen Hezkuntzako irakasleei.
- URRIAK 9, 16, 23 eta 30**
Ebaluazio hezitzailea
Marisol Uribe
Gaian interesa duen edonori eta batez ere Bigarren Hezkuntzako irakasleei.
- AZAROAK 6, 13 eta 20**
Psikogenesia, idazketa sistemaren ikaskuntza prozesua
Elena Laiz
Gaian interesa duen edonori.
- URTARRILAK 14, 21 eta 28 eta OTSAILAK 4**
Haurra heltze- eta ikaste prozesuen subjektu izatea ahalbidetuko duen pedagogiaren bila
Alvaro Beñaran
0-6 urteko haurrekin lan egiten duten hezitzaileei.
- URTARRILAK 14, 21, 28 eta OTSAILAK 4**
Neurohezkuntza: garunaren funtzionamenduan oinarritutako ikaskuntza
David Castrillo
Gaian interesa duen edonori eta batez ere Lehen Hezkuntzako irakasleei.
- MARTXOAK 4, 11, 18, 25**
0-3 urteko hauren mugimenduaren garapena Emmi Piklerren ikuspegitik
Eider Garde
0-3 urteko haurrekin lan egiten duten hezitzaileei.
- MARTXOAK 11, 18, 25 eta APIRILAK 1**
Elkarrizketa kooperatiboa DBHko nerabeekin
Imanol Alvarez
Gaian interesa duen edonori eta batez ere Bigarren Hezkuntzako irakasleei.

ikastaro homologatuak

Izen-ematea irailetik aurrera

Bisita pedagogikoak

Euskal Herriko ikastetxeetara bisitak egingo ditugu proiektu pedagogiko desberdinak ezagutzeko.

- URRIAN**
 - Kattuka haur eskola**
Arbizu, Nafarroa
0-3 urteko haurrentzako proiektu pedagogikoa
- AZAROAN**
 - Arberoa ikastola**
Donamartiri, Nafarroa Behera
Komunikazio Ez-Bortitza
- URTARRILEAN**
 - Arizmendi ikastola**
Arrasate, Gipuzkoa
DBHren etengabeko eraldaketa
- OTSAILEAN**
 - Aranbizkarra ikas-komunitatea**
Gasteiz, Araba
Aniztasunari erantzuten
- MARTXOAN**
 - Herrikide ikastetxea**
Tolosa, Gipuzkoa
Emozioak eta gatazkak
- APIRILEAN**
 - Luzaide-Arnegiko mugaz gaindiko eskola**
Luzaide, Nafarroa Garaia
Arnegi, Nafarroa Beherea
Euskararen, frantsesaren eta gaztelaniaren lanketa
- MAIATZEAN**
 - Lekeitioko ikastola**
Lekeitio, Bizkaia
Zaintza: hauren, irakasleen eta familien zaintza



Ahalduntze eskola

Mugikortasun segurua bultzatzeko alea jarritz

Bide segurtasunerako heziketako saioek mugikortasun segurua eta errespetuzko portaerak eta jarrerak bultzatzea dute helburu.



Ibon Iturraspe
Bilboko Udaltzaingoko Bide Segurtasuneko Ikuskaritzako ofiziala



Bilboko Udaltzaingoak bide segurtasunari buruzko saioak eskaintzen dizkie ikasleei 1992az geroztik. Mugikortasun segurua sustatzea da saio horien helburu nagusia, errespetuzko portaerak eta jarrerak bultzatzearekin batera. Biziki garrantzitsua da etxean eta es-

kolan bide segurtasunaren gaineko heziketa bultzatzea.

Denoi eragiten digu bide segurtasunak, jaiotzen garenetik erabiltzen baititugu kaleko bideak. Zer alderdi hartu behar dira kontuan seguru ibiltzeko?

Oso oinarritzkoa da, baina espaloietan eta oinezkoentzako guneetan modu autonomoan eta seguru ibiltzea da oinezko gisa hartu dezakegun babes neurri nagusia. Horrez gain, oso garrantzitsua da erabiliko ditugun ibilbideak edo guneak ezagutzea, bide seinaleak errespetatzea eta gainerako erabiltzaileekin errespetuzko eta zuhurtziazko jarrerak izatea.

Bidaiari eta gidari gisa dugun arduraz ere aritzen zarete, arriskua oso desberdin hautematen baita kasu horietan guztietan.

Gidariak ibilgailua erabiltzeaz haragoko faktore askori erreparatu behar die, hala nola bide seinaleei, biderearen gainerako erabiltzaileei edota baldintza klimatologikoei.

Zer hartu beharko genuke kontuan kasu bakoitzean?

Bidaiari gisa, garraio bideetan jokabide zuzenari eta seguruari buruzko arauak barneratu behar ditugu, gidariari, gainerako bidaiariei eta bide erabiltzaileei zailtasunak eragin diezazkieketen jokabideak saihesteko. Gidari bihurtzen garenean, berriz, gure gain hartu behar dugun erantzukizuna askoz ere handiagoa da, eta gidariek kontuan hartu behar dituzte, esate baterako, abiadura, erabiltzen ari diren bide mota, ikuspena, zolagainaren egoera edo zirkulazioaren egoera.

Garrantzi handia du arriskuaz jabetzeak. Kontziente al gara bideak, errepideak dituen arriskuez?

Ez. Alertarako jarrera izateak arriskuak de-

tektatzen, identifikatzen eta horien aurrean erantzuten laguntzen digu, eta gure inguruan gertatzen denari erreparatzeko trebetasun hori ikas eta entrena daiteke. Zoritxarrez, badirudi arriskua atzemateko gaitasuna alde batera uzten ari garela, besteak beste, saketako telefonoen erabilerak bultzatuta.

Bide segurtasunaren bidez, gainerako pertsonen lekuan jartzearen garrantzia ere lantzen duzue. Errepidean dugun jokabideak besteengan eragin handia izan dezake, ezta?

Zalantzarik gabe, portaera orok eragina izan dezake; bai eragin negatiboa, eta baita eragin positiboa ere. Gidari, bidaiari edo oinezko gisa gure bidetik zirkulatzeak gainerako erabiltzaileekiko erantzukizuna eta konpromisoa eskatzen dizkigu, guztiok ahalik eta segurtasunik handienarekin eta arriskuak murriztuz mugitzeko aukera izan dezagun. Erabiltzaile guztiok jar dezakegu mugikortasun segurua bultzatzeko aletxoak.

Alderdi teorikoa eta alderdi praktikoa uztartzen dituzue ikastetxeetan eskaintzen dituzuen ikastaroetan. Zer lantzen duzue?

Alderdi teorikoari dagokionez, zirkulazioaren oinarrizko arauak eta bide seinaleen esanahia irakasten dizkiegu, bai eta bide segurtasunaren esparruan egunerokoan izan daitezkeen arazo eta arrisku nagusiak ere. Bestalde, norberaren eta gainerako bide erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko jokabide arauak ezartzen ditugu. Ondoren, Sarrikondoko pistetan egiten ditugu praktikak. Gune horretan, ikasleak bizikletaz ibiltzen dira semaforoak, seinale bertikalak edo bide marrak dituen zirkuitu batetik. Horrela, seinaleztapenaren oinarrizko kontzeptuak ulertzen dituzte, eta bizikletan segurtasunez ibiltzen ikasten dute. Amaitzeko, pistaz kanpo ibiltzen dira bide heziketako udaltzainek lagunduta, ikasleen segurtasuna une oro bermatzeko.



Kontuan hartu beharrekoak

Oinezko, gidari zein bidaiari izan, badira aintzat hartu behar dituzkeen hainbat jokabide. Hauek dira horietako batzuk:

Oinezkoak

- Ibil espaloietatik eta oinezkoentzako bideetatik.
- Ibilbideak ezagutu.
- Bide seinaleak errespetatu.
- Gainerako erabiltzaileekin errespetuzko jarrera izan.

Gidariak

- Ezagutu bidea.
- Bide seinaleak errespetatu.
- Abiadura neurtu.
- Baldintza klimatologikoak ezagutu.
- Zoladuraren egoera kontuan hartu.
- Ikuspena aintzat hartu.
- Gainerako erabiltzaileak kontuan hartu.

Bidaiariak

- Izan jokabide zuzenak, gainerako bidaiariei eta gidariei arazorik eragin gabe.

EAEko Hezkuntza Legea Biharamunerako koordinatuak

EAEko Hezkuntza Lege berriak agertoki berri batean jarri ditu Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikastetxeak, irakasleak, hezitzaileak, langileak, ikasleak, familiak, hezkuntza eragileak eta, oro har, jendarte osoa.

*hik hasi*ren Hezkuntza Proposamenaren talaiatik begiratu diogu abagune berriari. Legeak zabalduko aukerak, sortutako zalantzak eta aurrera begira garatu beharreko ildoak aletzen dira liburuxka honetan, betiere denontzat eta denona izango den euskal hezkuntza-sistema xede.

Monografiko berria



Pertsona gorrak ulertuz



50

Proposamena

Pertsona gorren nazioarteko eguna da otsailaren 28a. Pertsona gorren, gor-mutuen eta entzumen urritasuna dutenen errealitatea ezagutzeko eta haiekin komunikatzeko bideak ezagutzeko abagunea eskaintzen digu iraileko azken asteak.

Datorren ikasturtea hastearekin batera, pertsona gorrengana, gor-mutuegana eta entzumen urritasuna duten pertsonengana gerturatzeko aitzakia ekarriko digu egutegiak: irailaren 28a Gorren Nazioarteko Eguna baita. Bada nahikoa arrazoi pertsona gorren eta entzumen urritasuna duten pertsonen errealitatea ezagutzeko.

Berriazko hainbat baliabide daude gorren eta entzumen urritasuna duten pertsonen eta ez dutenen arteko zubi-lana egiteko, zeinu-hizkuntza, inplante koklearrak eta audifonoak, kasurako. Zeinu-hizkuntzaren kasuan, alabaina, komunikazioa egon dadin, pertsona gorrek ez ezik ingurukoek ere zeinu-hizkuntza jakin behar dute. Pertsona gorrek eta gor-mutuek erabiltzen duten hizkuntza hori ahozkoarekiko independentea den hizkuntza beregaina da.

Euskal Gorrak Pertsona Gorren Elkartearen Euskal Federazioaren arabera, komenigarria da ikastetxeetan gorreriaz eta entzumen urritasu-

Iraileko azken astea, gorrentzat

Iraileko azken igandean ospatu izan da Pertsona Gorren Nazioarteko Eguna, 1951n Pertsona Gorren Munduko Federazioaren lehen Batzarra egin zenetik. Data bat finkatze aldera, herrialde batzuek irailaren 28ari heldu diote, eta beste batzuek 29ari. Finean, iraileko azken astea keinu hizkuntzara eta pertsona gorren, gor-mutuen eta entzumen urritasuna dutenengana bereziki gerturatzeko astea da nazioartean.



naz gehiago mintzatzea: zer den pertsona gor bat ezagutzea, eduki ditzakeen oztopoen berri izatea, sentsibilizatzea eta herritar guztiek eta hezkuntza komunitate osoak oinarritzko hainbat zeinu ikastea mesedegarria izango

litzatekeela uste dute: "Garrantzitsua da gizarteak ulertzea gorreria zer den, eta eragiten dituen komunikazio-oztopoak saihesteko edo arintzeko estrategia ezberdinen berri izatea". Gorreria arloan ere hainbat maila daude, galera eta gradu ezberdinak baitaude, eta gor guztiek ez dute zeinu-hizkuntza erabiltzen komunikatzeko tresna gisa. "Kolektiboaren zati handi batek erabiltzen du, baina galera ba-xuagoak dituztenak edo audiofonoekin ondo moldatzen direnak ere badaude. Ez da berdina zeinu-hizkuntza erabiltzen duen pertsona batekin komunikatzen saiatzea edo erdi mailako galera bat daukan pertsona batekin komunikatzea. Batzuekiko zein besteekiko estrategiak ezberdinak dira, eta horregatik, garrantzitsua da dauden aukerak ezagutzea".

Ume gor baten beharrei erantzun ahal izateko, ulertu behar da, gorrak, mutuak eta gor-mutuak ez direla gauza bera. "Gorren mundua ezagutzen ez duen batek horrelako nahastea izatea ulergarria da; baina ez dira nahastu behar. Ez dutenez entzuten, jende askok uste du gorrak mutuak direla; baina gorrek hitz egin dezakete, hotsak atera ditzakete. Entzumen galera oso txikia edo ertaina dutenek, edo audiofonoarekin ondo moldatzen direnek eta baita beste pertsona gor batzuek ere hitz egiten dute, eta gainontzekoek ulertzen diete; badaude beste batzuk hitz egiteko gai direnak, baina gainontzekoak ez direnak gai haiei ulertzeko, tonua gaizki erabiltzen dutelako edo ez dutelako ondo ahoskatzen".

Euskal zeinu-hizkuntza propiorik gabe

Munduan hainbat zeinu-hizkuntza daude, eta tokian toki zeinu-hizkuntza bakoitzak bere konfigurazioa, bere gramatika eta bere egitura ditu. Euskal Herriko pertsona gorrek gaztelaniako zeinu-hizkuntza edo frantseseko zeinu-hizkuntza erabiltzen dute. Hala deitzen zaie, baina hizkuntza horiek ez dute zerikusirik ahozko gaztelaniarekin eta ahozko frantsesa-

Zer da zer? Implanteak eta audifonoak

- Implante koklearra ezer entzuten ez duten urtebete inguruko haurrei jartzen zaie, horien barne-belarriak ez baitu entzuteko moduan funtzionatzen. Pertsona entzuleen kasuan, soinu baten aurrean tinpanoak bibratu egiten du, eta erdi-belarriko hezurrek bibratu egiten dute; horrek, bibrazioa kokleara bidaltzen du, eta entzumen-nerbioan zehar doaz garuneraino, seinale elektriko bihurtuta. Implantea duten pertsonen kasuan, erdi-belarriak ez du funtzionatzen, hortaz, implanteak bere funtzioa ordezkatzen du, soinua seinale elektriko bihurtuta. Hala ere, implantea duen pertsonak ez du pertsona entzuleak bezala entzuten, deskodetze-prozesua ez baita berdina.

- Audifonoek mikrofono moduan funtzionatzen dute. Faktore asko kontuan hartuta, bolumena igo egiten dute, entzumen-nerbioaren bidez bidaltzen diren seinaleak indartsuagoak izan daitezen. Audifonoak belarriaren atzealdean kokatzen dira eta aurikular txiki bat belarrarian sartzen da. Ez dute kirurgiarik behar.

rekin. Euskal Herriak ez du euskarazko zeinu hizkuntza propiorik.

Bizipoza elkarteak gorreriarra eta entzumen urritasuna duten pertsonen errealitatera gerturatzeko hainbat jarduera ditu Bizipoza eskolan, Ulertuz Bizkaiko Haur Gorren Familia eta Lagunen Elkarte Bizipozako kide baita. Euskarazko hainbat kanturen zeinu-hizkuntzako bideoklipak ere biltzen ditu.

hik hasi

Hezkuntza
eraldatzeko

Izan zaitez
HikHasitarra!

www.hikhasi.eus



Psikogenesia

Idazketa-sistemaren ikasketa-prozesua

Umek euren kabuz ikasten dute idazten eta irakurtzen

Baieztapen horrek zalantza sortu diezaioke norbaiti, baina denborak eta esperientziak frogatu dute hala dela. Idazketa sistemaren ikasketa prozesuari heldu dio **Elena Laiz** irakasleak lan honetan eta hamaika irakaslek eta Laizek berak trukaturako esperientziak jaso dira.

Monografiko berria



Sergio Tejero

Gasteizko Koldo Mitxelena BHIko
Berrikuntza Arduraduna

Atzeko atetik

Notarik gabe

Z iur askotan entzun duzula kalifikatzea eta ebaluatzea bi prozesu desberdin direla. Entzun bai, baina ulertu, Ruth Butler-en ikerketa irakurri arte ez nuen ulertu: hiru talde. Azterketa bera. Hiru atzeraelikadura mota: nota; nota eta iruzkina, eta iruzkina soilik. Hurrengo azterketan, nork hobetu zuen? Teoria jakin badakigu. Zergatik ez dugu aplikatzen?

Denbora faltagatik. Nola ez dugu denbora faltarik izango uneoro notarako azterketak, aurkezpenak, ariketak... egiten ari bagara! Prestatzeko, denbora. Gauzatzeko, saio oso bat. Zuzentzeko, denbora. Hobetzeko, denbora gehiago. Berreskuratzeke, denbora gehiago bider bi. Berreskurapena berreskuratzeke, bider hiru. Tresna horien gehien-goak, gainera, akatsak zigortzen ditu. Nota, nota, nota... Ikaslearen ebaluazioa kalkulu-orri baten esku dago.

Lagun batek esaten du azterketa egiteko eskubidea ikasleak irabazi behar duela. Prest dagoenean, egin dezala. Joko Olinpi-

koetara joan ahal izateko atletak gutxieneko marka gaintu behar du eta markarik onena hartzen da kontuan. Aditu bati entzun nion ikaslearen ekaineko nota (ebaluazio "arrunta"-ri dagokiona) ikasturtean zehar lortu duen notarik altuena izan beharko litzatekeela. Ez nator bat. Gelako atletismo pista motzagoa da azaroan ekainean baino.

Irakasle gelan, martxoan, ikasleren batek ekainean zer nota aterako duela badakigula esatean, "baita abenduan ere!" entzuten da. Hala bada, denbora galtzen ari gara. Denbora, esfortzuak...

Iruzkin gehiago, notarik ez. Eguneroko lanaren behaketa ebaluatzeke tresnarik onenatariko bat da. Ikaslearen autoerregulazioa, onena. Esaiozu ikasleari zein den ebaluazio irizpidea. Bere hizkeran: zer nahi dut zuk ikastea edo egiten ikastea. Berak frogatu diezazula hori nola lortu duen eta Joko Olinpi-koetara aurkeztuko den ala ez.

Postdata: izenburua Mariana Moralesen podcastari lapurtu diot.

Psikomotrizitate Erlazionala:

aukera berdintasunerako eta emozioen hezkuntza

Mapi Urrestirekin

Psikologoa, sexologoa eta
harreman psikomotrizista



2024-2025eko irailetik ekainera



20 saio | teorioko/praktikoak eta bizipen/jolas saioak



Ostiralak 17:00-19:00 Larunbatak 9:00-14:00



1.215 euro | 415 euro matrikula eta 80 euro hilero
Hikasitarrek 50 €ko beherapena izango dute



Usurbilen

Psikomotrizitateak haurrari segurtasun lekua eskaintzen dio eta horretarako beharrezkoa da formazio honetan lantzen diren eduki eta bizipen saioak egitea.

Izen-ematea zabalik

www.hikhasi.eus/formazioa

